

Arbolak landatu eta txorizoa jan.

- **Idoia Narbaiza**
KAIXO Udal aldizkaria – 91 zkia – 2007

Gaur egun Urretxuko eskolaumeek ostegun gizen egunean hamarretakoa dohainik egiten dute, udalaren kontura. Izan ere, honek, ohitura zaharrari jarraituz, txorizo bokadiloak eta laranja banatzen dizkie. Baina nondik dator ohitura hori? Txorizo-ogitartekoari arrastoa jarraitu nahi izan diogu, eta modu horretara nahikoa buelta eman ditugu. Begira bestela, noraino joan garen.

Aspaldiko ohituren berri jakiteko adineko jendearekin hitz egitea da iturririk onena. Horrela egin genuen eta gogoan dute nola txikitik ostegun gizen egunean Santa Barbarara joaten ziren zuhaitzak landatzera eta egindako lanaren truke merienda ematen zieten: txorizo bokadiloa eta laranja.

Hori horrela zela jakinik, hari horretatik tira egitea erabaki genuen. Jakin badakigu zergatik jasotzen duten gaur egun bokadilo hori, baina nondik norakoa zehaztu nahi izan dugu.

Horretarako denboran atzera egin behar dugu, atal honen izenak dioen bezala, atzera begiratu. Eta oso atzera izan ere. Espainian lehenengo Zuhaitzaren Jaia Mondoñedo (Galizia) egin zuten, 1594. urtean. Ez da, beraz, atzoko kontua. Orduan Luaces erregidoreak antolatu zuen, eta bazkari ederra eman zien parte hartu zuten guztiei.

Gure garaietara hurbilduz, jakin izan dugu 1898 urterako nahiko errotuta zegoela jai hori Espainiako hainbat herrialdeetan. Esaterako, Cabo de Gatan (Almeria), 1805 urtean jasota dute horren testigantza eta inauterietako asteartean egiten zuten jai hori. Ez da, baina, daukagun adibide bakarra, jai handia antolatu zuten Peñaranda de Bracamonte (Salamanca) 1905 urtean, 600 arbola landatu zituzten eta umeei pastelxoak, opila eta laranja eman zieten meriendarako. Soto de Camerosen (Errioxa) jasota dago jai horren testigantza 1907 urtean.

Baina jai hori indartzeko asmoz, 1904ko martxoaren 12an Errege dekretua atera zuten Zuhaitzaren Jaia egiteko gomendatuz, bertan adierazten den bezala nahiko errotuta egon arren jendearen ekimenez. Laguntzak eta sariak emango zizkieten antolatzen zuten herriei.

Egun handia izaten zen Zuhaitz Eguna edo Jaia, bertan parte hartzen zuten herriko apaizak edo erretoreak, medikuak, maisuak, eta alkateak, baina hori ere dekretuz erregulatuta zegoen. Urte horretako dekretuan gomendatu egin zuten jai, baina 1915eko urtarrilaren 6ko Errege Dekretuan derrigorrezkotzat ezarri zuten egitea.

Urretxun 1914 urtean aurkitu dugu honen lehenengo erreferentzia, ez dakigu lehenago ospatu zen edo ez, baina urte horretan, behintzat, egin zuten. Pertsona batek eskaini zituen pinu landareak Zuhaitzaren Jairako. Hurrengo urtean, hau da 1915ean, otsailaren 11n egin zuten.

1924 urtean bandera eraman zutela ere jakin badakigu eta baita 80 umek parte hartu zutela, beste hainbeste ogi-opil banatu zirelako.

Artxiboan datu asko aurkitu ditugu, eta 1932ko Zuhaitzaren Jaia ekarriko dugu gogora. Otsailaren 11n egitekoa bazen ere, atzeratu egin behar izan zuten egin zuen eguraldi eskasagatik hurrengo ostegunera arte. Urte horretan indigaztainondoak landatu zituzten, eta haurrei merienda Egiburun erositako 3 kilo txorizorekin eta Ugalderean alargunari

erositako ogi-opilekin osatu zuten. Egibururen harategia ia gaur egunera arte egon da martxan, eta Ugaldetarrak familia ezaguna zen. Pentsa ezazue, 3 kilo txorizo 28 pezeta ordaindu zituzten. Bizitza ederki garestitu da ordutik hona!

Baina badirudi, oraindik ez zuela egun zehatzik jaiak. Hurrengo urtean astearte batez egin zelako. Beraz, ez dakigu noiz finkatu zuten ostegun gizeneko data.

1933 urteaz ari gara orain. Urte horretan Anizeto Olaizolak sinatzen du 25,20 pezetako faktura bat. Faktura horretan agertzen da nola arduratu zen zuhaitzak inausteaz eta Santa Barbarara landatu beharreko zuhaitzak eramateaz. Anizeto idiekin ibiltzen zen garraioan.

Jakin izan dugu ere, 1927an José Moral y Fernández de Aguilar jaunak ereserkia egin zuela eta nahi izan zuen derrigorrezkoa izatea ereserki hori, baina ez zioten eskaera onartu. Ezin izan dugu ereserkiaren letra lortu.

Arbolek ez dituzte txorizoak ematen baina landatzeak bokadiloa dakar opari.

Laburpena.

El jueves gordo miembros del Ayuntamiento de Urretxu reparten la merienda a los escolares: un bocadillo de chorizo y una naranja. Queriendo saber el motivo de esta tradición, hemos preguntado a los mayores, quienes nos han dado la pista principal al recordarnos que a ellos también les daban el bocadillo y la naranja el día de jueves gordo. Pero para merecer tan sabrosa merienda antes tenían que plantar árboles en Santa Bárbara. Es decir, se celebraba la Fiesta del Árbol, y como recompensa del arduo trabajo recibían la mencionada opípara merienda.

Sabemos que en Urretxu ya se celebró en 1914, aunque desconocemos si anteriormente se realizó algún otro año. Desde luego era una Fiesta que se celebraba con todo el boato, llevaban hasta bandera, y acudían el cura párroco, el médico, el maestro e incluso el alcalde. Lo que no sabemos es que merendaban ellos ni si plantaban árboles. En otros lugares de España también se celebra y parece ser que desde bastante antiguo, ya que para 1898 era una Fiesta muy arraigada. Contribuiría, de algún modo, que en 1915 un Real Decreto la declarara obligatoria. Claro que tampoco estaría tan mal en la época un bocadillo de chorizo y una naranja de merienda. Más si tenemos en cuenta los precios de aquella. En 1932 tres kilos de chorizo costaron 28 pesetas en la carnicería de Egiburu, y el pan, no sabemos cuantos panes 22,80 pesetas suministrados por la Viuda de Ugalde.

Hoy en día continúan con esta tradición que en Urretxu ya lleva camino de convertirse en centenaria.

Entresakak:

“Espainian lehenengo zuhaitz eguna Mondoñedon (Galizia) egin zuten, 1594. urtean. Ez da, beraz, atzoko kontua”

“1915eko urtarrilaren 6ko Errege Dekretuan derrigorrezkotzat ezartzen duten jai hori.”

“Pentsa ezazue, 3 kilo txorizo 28 pezeta ordaindu zituzten. Bizitza ederki garestitu da ordutik hona!”